

AZPEITIKO UDALA ETA DEUSTO UNIBERTSITATEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Azpeitian, 2026ko otsailaren 24ean,

ELKARTU DIRA

Alde batetik, NAGORE ALKORTA ELORZA andrea, Azpeitiko Udalaren Alkate-lehendakaria Azpeitiko Udalaren ordezkari-lanetan.

Bestetik, Aloña Larrañaga Urdalleta, IFZ G20957627 duen eta Jauzika elkartearen izenean, eta egoitza soziala José Artetxe Kalea 14, 4. ezkerrean, 20730 Azpeitia Gipuzkoa, duenak.

Bestetik, Isabel Rubio Florido andrea, Deustuko Unibertsitateko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Dekanoa, DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREN ordezkari-lanetan, Juan José Etxeberria Sagasturme Errektorea, sinadura berariaz eskuordetuta, IFZ R4868004E eta egoitza soziala Uniertsitatetako Etorbidea, 24. 48007 Bilbao Bizkaia, duenak.

Agertutako bi alderdiek elkarri aitortu diote Lankidetzaren Hitzarmena izenpetzeko behar adinako legezko gaitasuna, honako hau:

ADIERAZTEN DUTE

Deustuko Unibertsitateak goi-mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa garatzen du. Ikerketaren, irakaskuntzaren eta azterlanaren bidez, besteak beste, ikasleen garapen profesionalerako prestakuntzarik egokiena lortzea eta ikerketa, garapen zientifikoa eta berrikuntza teknologikoa sustatzeko, komenigarria da beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea.

HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Deustoko Unibertsitateko “Intervención, calidad de vida e inclusión social” ikerketa taldeak aurrera eramango duen **desgaitasun intelektuala eta garapen-desgaitasuna duten haurren parte hartzea hezkuntza ez-formaleko espazioetan; oztopoen azterketa eta inklusiorako proposamenen identifikazioa kasu azterketa baten bidez** garatzeko lankidetzaren ezartzea, AZPEITIKO UDALAK bere baliabideak eta datuak eskuragarri jarritz, eta DEUSTUKO UNIBERTSITATEAK beharrezko jarraipen akademikoa eta metodologia espezializatua bermatuz.

Ikertzaile nagusia: Carmen Olano Iriarte
Ikerketa taldea. Intervención, calidad de vida e inclusión social
Fakultatea: Hezkuntza eta Kirola

HITZARMENAREN MOTIBAZIOA

Azpeitiko Udalak bere egiten du desgaitasuna duten adingabeen eta haien familien **inklusio soziala, hezkuntza-berdintasuna eta parte-hartze eraginkorra** bermatzeko konpromisoa. Hori dela eta, funtsezkotzat jotzen du udalerrian desgaitasuna duten haur eta gazteek, baita haien familiek ere, **eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eta eskolaz kanpoko hezkuntza-esparruetan sartzeko** izan ditzaketen **oztopoak, zailtasunak eta bazterkeria-mekanismoak** modu sistematikoan aztertzea eta identifikatzea.

Udalaren ikuspegitik, ikerketa honek aukera emango du **erantzun eraginkor eta oinarritu bat** emateko, bai politiketan, bai jardueren diseinuan, bai udal-zerbitzuen antolaketan, haur eta gazte guztiek —desgaitasuna dutenek barne— aukerak baldintza berdinetan izan ditzaten.

Lankidetzaren Hitzarmenak 40/2015 legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren araubide juridikoa jarrauz 47. artikuluan eta 1. puntuan zehazten du “Hitzarmenak herri-administrazioek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko erakundeek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin xede komun baterako hartutako akordioak, ondorio juridikoak dituztenak dira” eta 48. artikuluan 3. puntuan “hitzarmenak sinatzeak kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetu beharko du, bitarteko eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea erraztu beharko du, onura publikoko jarduerak egiten lagundu beharko du eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraukortasunari buruzko legeria bete beharko du”

KLAUSULAK

Lehena: IKERKETAREN DESKRIBAPENA

Ikerketak desgaitasuna duten adingabeek eta haien familiek **eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eta eskolaz kanpoko hezkuntza-esparruetan sartzeko** dituzten **oztopoak, zailtasunak eta bazterkeria-mekanismoak** aztertzen ditu.

Bigarrena: IKERKETAREN HELBURU NAGUSIA

Desgaitasuna duten haur eta gazteen eta haien familien esperientzietan oinarrituta, **parte-hartzea mugatzen duten oztopo fisikoak, sozialak, instituzionalak, ekonomikoak eta jarrera-arlokoak** identifikatzea eta aztertzea; baita jarduera

eskuragarriagoak eta inklusiboagoak sustatzeko **hobekuntza-proposamenak** egitea ere.

Hirugarrena: HELBURU ESPEZIFIKOAK

1. Udalerrian eskaintzen diren eskolaz kanpoko jardueren **irisgarritasun-maila** aztertzea.
2. Desgaitasuna duten adingabeek eta haien familiek jasaten dituzten **traba praktikoak** identifikatzea.
3. Jarduera eta espazioen diseinuan dauden **oztopo sozial eta kulturalak** aztertzea.
4. Udalaren eta gainerako erakundeen **kudeaketa-prozesuak eta antolaketa-moldeak** aztertzea, desgaitasunaren ikuspegitik inklusioa nola lantzen den neurtzeko.
5. Lortutako informazioan oinarrituta **proposamen eta gomendio praktikoak** egitea, udal-jardueren eta hezkuntza-eskaintzaren inklusioa hobetzeko.

Laugarrena: IKERKETAREN METODOLOGIA

Ikerketa hau egiteko elkarrizketak eta eztabaida taldeak egingo dira.

Elkarrizketak: banakako elkarrizketak egingo dira hautatutako zenbait partehartzailerekin, haien esperientzia pertsonalak eta hezkuntza testuinguruan aniztasunari heltzeko moduari buruzko ikuspuntuak sakonago aztertzeko. Elkarrizketak kualitatiboak izango dira, eta aniztasunari emandako erantzunek eragiten duten faktoreen ulermen zehatza ahalbideratuko diute, bizitza-narrazioen bidez.

Eztabaida taldeak: eztabaida taldeak antolatuko dira hainbat parte hartzaileekin, ideiak eta gogoetak elkarlaneko giroan trukatzeko. Talde elkarrizketa horiei esker, familiek, profesionalak eta elkarteak gune horietan aniztasuna nola bizi duten eta praktika inklusiboak nola hobetu daitezkeen jakiteko ikuspegi desberdinak identifikatu ahal izango dira.

Bostgarrena: ALDEEN KONPROMEZUA

DEUSTOKO UNIBERTSITATEAren konpromisoak:

1. Ikerketaren jarraipen akademikoa, tutoretza eta ebaluazioak bermatzea.
2. Etika-batzordearen baimenak eta ikerketa-protokoloak kudeatzea.
3. Azpeitiko Udalari ikerketaren aurrerapen-txostenak bidaltzea, eta ikerketa amaituta ikerketaren emaitza.

4. Lortutako emaitzen erabilera arduratsua eta konfidentzialtasun arauen betetzea.

AZPEITIKO UDALAREN konpromisoak:

1. Ikerketa garatzeko beharrezkoak diren datu, instalazio eta dokumentazioa eskuragarri jartzea, betiere araudiak ahalbidetzen duen neurrian.
2. Teknikari edo arduradun bat izendatzea harremanetan aritzeko. **Udaleko Hezkuntza Teknikaria** izendatuko da ikerketaren eta lankidetzahitzarmenaren **arduradun tekniko** eta kontaktu nagusi.
3. Ikerketaren garapenean **Hezkuntza eta Gazteria Zerbitzuak** izango dira udalaren ordezkari.
4. Udaleko **Gazteria Zerbitzua Jauzika Elkarteak** kudeatzen duenez, erakunde honek **lankidetzak aktiboa** izango du ikerketan, datuak eta esparruak errazteko, familietara eta jarduera-eskaintzetara sarbidea ahalbidetzeko, eta beharrezko informazioa koordinatzeko.
Azpeitiko Udalak bere gain hartzen du Jauzika Elkarteak sor litekeen edozein erantzunkizun, Deustuko Unibertsitateari honetatik salbuetsiz.
5. Elkarrizketak, bisitak eta informazio-bilketa egiteko laguntza eta erraztasunak ematea, aurrez adostutako protokoloen arabera.

Seigarrena: DATUAK TRATATZEKO BAIMENA

Lankidetzahitzarmen hau gauzatzetik eratorritako eta datu pertsonalen tratamendua dakarten jarduketa guztiei dagokienez, aldeek konpromisoa hartzen dute datu pertsonalak babesteko araubidea betetzeko, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan ezartzen dena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan eta, hala badagokio, aplikatzekoa den araudi espezifikoan.

Egiten d(ir)en datu(ar)en tratamendua(k) hitzarmen honetan ezarritako helburuak betetzeko izango dira. Ondorio horietarako, Hitzarmena sinatu duten erakundeek TRATAMENDUAREN ARDURADUN gisa jardungo dute eta, hala badagokio, Hitzarmen hau gauzatzeko egiten diren datu pertsonalen tratamenduei aplikatu beharko dizkiete aipatutako araudian ezarritako printzipio, berme eta neurri tekniko eta antolamenduzkoak, pertsonak beren datu pertsonalak tratatzean dituzten eskubideak eta askatasunak behar bezala babesteko.

Alderdiek konfidentzialtasunari eutsiko diote emandako informazioaren eta hitzarmen hau gauzatzearen ondorioz sortutako edozein motatako informazioaren tratamenduan; betebeharrak hori mugarik gabe luzatuko da, nahiz eta hitzarmena iraungi. Nolanahi ere, alderdiek baimena eman ahal izango dute edo, hala

badagokio, informazio hori jabari publikokotzat joko da. Bi erakundeek neurri tekniko eta antolamenduko neurri egokiak ezarri beharko dituzte, dagozkien arauetan aurreikusitakoaren arabera, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek aldatzea, galtzea, tratatzea edo baimenik gabe eskuratzea saihesteko.

Alderdi bakoitzak bere gain hartuko du datu pertsonalak erabiltzeko erantzukizuna, baldin eta datu horiek ez badatoz bat hitzarmen honen ondoriozko kontratuzko betebeharrekin, legezko betebeharrekin edo interes publikoko betebeharrekin. Alderdi bakoitzak bere gain hartuko ditu, bere arau-esparruan ezarritakoaren arabera, ondorioak. Klausula honetan jasotako xedapenak ez betetzeak hitzarmen hau deuseztatzeko eskubidea emango die alderdiei.

Lankidetzeta-hitzarmen honen sinatzaileen eta parte-hartzaileen datu pertsonalak eta harremanetarako datuak hitzarmena gauzatzean oinarrituta tratatuko dira, bai eta legezko betebeharrak bat eta interes publikoko misio bat betetzean oinarrituta ere, lankidetzeta-hitzarmen honetan xedatutakoa mantendu, bete, garatu, kontrolatu eta betearazteko.

Era berean, interesdunek edozein unetan baliatu ahal izango dituzte datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, horien aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, eramateko eta erabaki automatizatuak ez hartzeko eskubideak. Horretarako, helbide honetara jo beharko dute: <idezkaritza@azpeitia.eus> eta <gazteria@azpeitia.eus>

Eskubide horiek Deustuko Unibertsitatean erabiltzeko, posta bidezko jakinarazpena bidali behar da helbide honetara: Deustuko Unibertsitatea (Datuak Babesteko ordezkaria), Unibertsitate etorbidea 24, 48007 Bilbao; edo posta elektronikoz Deustuko Unibertsitateko Datuak Babesteko ordezkariari, helbide elektronikoko honetara: dpo@deusto.es

Hala badagokio, interesdunak erreklamazio bat aurkeztu ahal izango dio kontrol-agintaritzari eskudunari, bere eskubideak urratu direla uste badu. Datu horiek hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean tratatuko dira eta, ondoren, bildu zireneko helburua betetzeko eta helburu horretatik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira

Zazpigarrena: JABETZA INTELEKTURALA ETA EMAITZEN ERABILERA

1. Tesiaren egiletza ikertzailearena izango da. Deustuko Unibertsitateko barne-araudiaren arabera.
2. Ekarpene zientifikoetan Azpeitiko udalaren lankidetzeta aitortuko da.
3. Azpeitiko udalak eskubidea izango du emaitzen laburpen ez-konfidentzial bat jasotzeko bere politika publikoetan aplikazio posibleak aztertzeko.

Zortzigarrena: IRAUPENA

Hitzarmen hau bi urtekoa izango da indarrean sinatzen den egunetik aurrera. Beharren arabera luzatu daiteke alde biek idatziz adostuta, hasierako indarraldia galdu baino lehen.

Bederatzigarrena: FINANTZAKETA

Hitzarmen honek ez du suposatzen finantza-transferentzia zuzenik, salbu eta alde biek berariaz hitzartzen badute.

Hamargarrena: ALDAKETA ETA EBAZPENA.

Hitzarmenaren edukia aldatzeko, bi alderdi sinatzaileen berariazko akordioa beharko da, eta idatziz dokumentatu beharko da. Horretako, dagokion eranskina idatzi beharko da, hitzarmenaren beraren zati gisa, eta legitimatutako esku-hartzaileek sinatu beharko dute. Agiri horretan ezartzen den egunetik aurrera izango da baliozkoa.

Era berean, bi alkerdiek beren kabuz suntsiarazi ahal izango dute hitzarmen hau, baldin eta hirugarren klausulan zehazten diren garatu beharreko jardueri dagokienez beren gain hartutako betebeharrak betetzen ez badituzte. Horretarako, idatziz jakinarazi beharko diote beste alderdiari, hogeita hamar egun lehenago, eta ebazpen hori arrazoituta justifikatu beharko dute. Alde horretatik, hitzarmen hau suntsiarazteak ez du ekarriko ezein kalte-ordain eskatzeko eskubiderik.

Hamaikagarrena: GATAZKEN EBAZPENA

Gatazkarik sortuz gero, aldeek negoziazioaren bidez konpontzen saiatuko dira. Hala ez bada, Gipuzkoako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioa onartzen dute.

Eta adostasuna eta uste ona erakusteko, dokumentu hau izenpetu dute lau aletan, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean

AZPEITIKO UDALA

**DEUSTUKO
UNIBERTSITATEA**

JAUZIKA ELKARTEA